

EUSKADIKO OSASUN ETA INGURUMEN BEHATOKIA DISEINATZEKO ETA ANTOLATZEKO PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA

Posted on 20/02/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Behatokiaren diseinua eta antolakuntza](#), [Ingurumen osasuna](#), [Osasun eta Ingurumen Behatokia](#)

Gaur aukera izan dugu Eusko Jaurlaritzako sailburuordeei eta Ingurumen eta Osasun Publikoko zuzendariei [Osasun eta Ingurumen Behatokia](#) diseinatzeko eta antolatzeke proposamen estrategikoa azaltzeko.

Aurkezpenean honako hauek landu dira: helburuak, funtzioak, osasunaren eta ingurumenaren esparruak, adierazleak eta datu-iturriak, sor daitezkeen produktuen katalogoa eta informazioa jasateko eta bistaratzeko plataforma teknologikoa. Hori guztia teknologia-, giza eta ekonomia-beharrak eta -eskakizunak ulertuta, lan-ildoak eta zeregin espezifikoak ezartzeko aukerak kontuan hartuta, eman nahi zaion anbizio teknologikoaren mailan oinarritutako ibilbideen arabera.

Talde teknikoak eta zuzendaritza-taldeak proiektuan zehar izan duten giro ona eskertu dugun bezala, lanean izan den harmonia bizia, kalitate teknikoa eta adimena berretsi nahi ditugu hemen. Espero dugu planteamenduak bide onera iritsiko direla eta herritarren osasunaren eta ingurumen-adierazleen interakzio konplexuari helduko dion Behatoki baten garapenean parte hartzen jarraitu ahal izango dugula.



